

bidegileak



Perpetua Saragueta (1905-1986)

Egilea:

JOSE MARI SATRUSTEGI

Emakume-eskubideen aitzindari trebea

M

ezkiritz eta Olondriz, ogi guti eta haur anitz –dio esaera zaharrak. Gari alorren ordeztu mendi-bazka aberatsak dituen lurraldea da Erroibar Nafarroan. Azienda izan da bertakoen ogibide nagusia, egur ondare eta ikazkin-tzarekin batera. Mendien jabetza dela eta mugaz bestaldekoekin izandako auzi eta gatazka zaharrak alde batera utzita, anai giro jatorrean ospatzen da gaur egun, *Sorogain* zelaidi ederrean, Iparraldeko abereak markatzeko festa handia. Bazka-saria ordaintzen dute urtero Aldude eta Banka aldeko jendeek euren ganaduak Erroibarko mendietan legeztatzeko. Bada bertan antzinako harrespil ederrik.



Perpetua Saragueta (1905-1986).



Iparraldeko azienda marketzeko festa polita egin ohi da urtero udaberrian.

Historia ospetsuko mugaldea zenez, harrizko etxe zahar sendoak ikus daitezke herrian, oholezko borda bitxien ondoan. Ingurumen

lasai honetan etorri zen mundura, baserri giroan, Perpetua Saragueta kemen bereziko emakume aparta.



Sorogain-en bada harrespil ederrik.



Mezkitz (Erroibar). Herriaren ikuspegi orokorra eta Perpetua Saragueta bataiatu zen eliza argazkiaren erdian.

Haurtzaroa

1905ean, abuztuaren hirua seinale, Mezkitz *Harakiñenean* bizi zen familia bateko nagusi gaztea Auritz (Burguete) aldean zebilen belar ebakitzen, lehenbiziko aldian aita izan zeneko berria iritsi zitzaiolarik. Ama eta haurra nola zeuden baino lehen, neskatoa ala mutikoa zen galdetzea bururatu zitzaion. Neskatila zela entzutean, esanguratsua den diosala egin zion jaioberriari:

—«Ba..! Zaku bat agotz.»

Kopetako izerdi gaziarekin familia aurrera atera beharrak ekarriko zion, nolabait, gogo-

ra seme baten amets lagungarriagoa Rikardo Saragueta aita gazteari. Ez zekien baserritar nobleak denbora berrien atetik haize ernarrien bolada astintzen hasia zela orduko gizartea. Emakume-eskubideen aldeko iraultza itxaropentsua urte hartan abiatu zen, hain zuzen, munduan zehar, hauteskunde-etan ukatzen zitzairen botoa lortzeko besterik izango ez bazen ere.

Euskaltzalea zen On Jose Eugi, herriko apaiza; ez haatik ponte izenen arazoan elizgizon malgua. Jaioberriaren aita-amen aurretik zegoen bera Mezkitzen eta, esamesen araber, herrian sortutako haur guztiek hark

hautatutako izenak zeramatzaten. Bihamunean egitekoa zen nesktilaren bataioa eta kristau uretatik zer izen aterako zain zeuden aurretik etxekoak.

—«Gaur, dagonilaren (abuztuaren) laua, badugu gizon izen anitz, baño andre batena bakarrik eta izen hori eman zaio: *Perpetua* da, eta hori da eman behar duena», —esan zien apaizak.

Denak isilik, ez baitzuten horrelakorik sekula entzun.

Elizgizonak berriro azpimarratu zien orduan bere erabaki fermua:

—«Errain diozie anitz aldiz *Perfekta*, baño ez du inport; *Perpetua* da eta hala deitu behar zaio.»

Horrela gauzatu zen elizaren eta gizartearen aurrean bizi guztirako —apaizaren eskutik, noski— nesktilaren nortasun ofizialeko izena. Noizbait *Betiko* sinatzen hasi arren, berandu zela konturatu zen. Pertsonak egiten du izena,



Juanmigelen. Perpetuaren etxea.
Bere bataio egunean bukatu zuten teilatua.

ez izenak pertsona, eta Perpetuak duintasun itzela bereganatua zuen bere izen bitxiarekin.

Egun berezia zen, bestalde, alabaren bataioa egun hura Saragueta familiarentzat arrazoi oso desberdinagatik. Amaren aldeko aitona Juan Migelek egun berean bukatu zuen *Txorondo* auzoan egiten ari zen etxe berriaren teilatuko lana, eta ohiko moduan ospatu zuten langileekin kaldor-festa. Ama Dionisiak *Juanmigelen*an ekarri zituen geroztik mundura Perpetuaren hurrengo hamabi senideak.

Eskola baino lehen egin behar izan zuen lanaren ikastaroa. Izan ere, jende langileen artean bizi zen. «Japoniarrak» esaten zieten Mezkirizkoei, «beren lanak eta bertzeenak egiten zituztelako.» Sei urte besterik ez zuen haurrak lehen azterketa gainditu zuenean, eta bikain egin ere. Egur garraioan zebilen une hartan bere aita, eta asto-karga etxe aurrean metatu ondoren, gosari-legea egiten ari zen goiz hartan sukaldean.

Alaba zaharrenak hara non esaten dion, berak ekar lezakeela astokada bat mendian nork kargaturik balu.

—«Zoaz eta beharrak kargatuko dizu», —erantzun zion.

Zinez hartu zuen nesktilak aitaren esana, eta badoa astoarekin bere bidean. Lantegira ailegatu orduko, bere buruz paratu zitzaion astoa egur metaren ondoan. Soka askatu eta laguntza eske ari zen oihuka haurra, baina ez zen nehor agertu. Etsirik, animaliairen gainean

egurrak ipintzen hasi zen, «eta ongi paratu ere, fardelkeriarik gabe» –zioen berak. Sokaz lotu behar zuen gero zama, bidean ez erortzeko, eta ez jakin nola. Azken oztopoa gainditu ondoren badator herrira «bidean egurrik erori gabe haatik» –bere hitzen arabera. Etxeko atarian erne aita, ama eta amatxi, garraiolaria noiz iritsiko zain.

–«Aita, ez da nehor etorri laguntzera», –eraso zion haserre alabak.

–«Eta nola egin duzu?»

–«Nola? Ahal dudan bezala. Zer egingo nuen bertzela?»

–«Hori da “beharra”»

Horrela gertatu zitzaiola berari ere, azaldu zion orduan aitak, eta handik aurrera bazen laguntzaile berri bat etxean: Aitak egiten zuen egurra eta alabak asto-garraioa. Umorez idatziz zuen, urte askoren buruan, *Sakarte*-ko oihanean deitu ziola aitak “beharrari”; berak, aldiz, *Iriko* oihanean. «Irrigarria dirudi, baina egia.»

Saragueta gaztearen egunetan ez zegoen Mezkititz-en eskolara joateko modurik, nahiz bazen hamabi edo hamahiru seme-alabako etxe bat baino gehiago. Horietatik 56 haur ikasteko adinean egon arren, ez zegoen maisurik herrian. Zazpi urte bazituen neskailak eskola zaharreko gelan lehenbiziko aldiz hankak sartzean. Manuel Lusarreta apaiza, bertako semea, arduratu zen haurrei lehen ikasgaiak ematen. *Euskal Erriaren Alde*, Iruñeko

aldizkariak, goraki laudatu zuen elizgizon honen lana. Sarturik omen zegoen ordurako Erroibarko elizetan elizkizunak erdaraz egiteko ohitura eta, apaizak euskaltzaleak izan arren, ez ziren ausartzen aldatzen. Lusarretak sermoiak, kristau ikasbidea eta sakramentuak euskaraz egiten zituen Mezkititzen. (1929, 303. znb., 53. or.)

Sei urterekin egina zuen lehen jaunartzea ordu arte ez bezala, Pio X. aita santuak emandako arau berriaren aurretik hamabietan egiten baitzen. Hori dela eta azken urte haietako haur guztiak elkarrekin hurbildu ziren aldare-



Mezkititz. Espartero etxearen ateburuan XIV. mendeko giltzarria.

ra, inoiz ezagutu ez zen bezalako ospakizun hunkigarrian. Perpetua zen gazteena.

Eskolako orduetatik landa betiko lanetan jarraitu zuen neskatoak, etxekoei laguntzen alegia. Hiru urte bakarrik iraun zuen ikastaroak, berak hamar zituenean apaiza eritu eta kale gorrian gelditu baitziren berriro haur guztiak. Geroztik, liburuak eta arkatza alde batera utzita, hobekienik ikasiak zituen arieketak ziren eguneroko langaia: ikazkintzan egurrak zerratu, burdin-ziri eta borraz enborrak lehertu eta txondorretako sua zaintzea garraiorik ez zegoenean. Beste batzuetan aitzurra, abereak eta orratza ziren bere biziko lagunak. Irakurtzea isilkako irrika bakarra. Eskura zetorkion guztia leitzen zuen igandetako bakardade lasaian.

Ez zuen asko iraun egoera berriak. *Juanmigelen*ean gaua sartu zen aitak istripu larria izan zuen egunean. Txondorra estaltzeko lurra ateratzen ari zen batean endaiarekin indarrez egur-zain handiren bat jo eta bi besoak hautsi zituen gizonak. Ez zen bere denboran ahanztekoa izango, eskolarik gabe mendi lanean hasi zeneko 1915. urte aldrebes hura. Eritegira eramán zuten gizona, baina Iruñeko medikuen orduko jakinduria guztia ez zen hain matxura

larriak sendatzeko gai izan. Bizi guztirako galdua zuen eskuetako indarra.

Perpetua zen, hamar urte puntarekin, familia gaztean zaharrena eta harrigarria da orduan gertatuaz urte askoren buruan idatzi zuena: «Adin hortan geurek in genduze(n) egurrek, eta in genduze(n) iketz tokiek. Geurek prestatu, igual bortz labe batian erretzen. Txinurriak bezala aitzen gine(n) lanian.»

Eguna joan eta eguna etorri, aitaren istripuko minek aitzinamendurik ez zutela ikustearekin, ikazkintza utzi behar izan zuen Saragueta familiak. Ez zen haurren esku egoteko lanbidea, eta Mezkirizko *unaitza* hartu zuen orduan aita ezinduak. Herriko abereak egunero mendira eramán eta etxera itzultzez arduratzen zen unaia. Egunekeo duroa eta bortz sos irabazten zuen, emaztea eta hamahiru seme-alaben ahora zerbait eramateko. Hiru ume zaharrenak joaten ziren aitarekin batean aziendak zaintzera. «Kantuz egoten zen mendian, gero etxean negar egingo bazuen ere», —idatzi zuen alabak.

Zailtasun gogorrenen ingude latzean joka landu zen, gaztetan, Perpetua Saraguetaren nortasun aparta biziko ezbeharrak guztiei kementsu aurre egiten jarraitzeko.



Idazle gaztea.

Idazle gaztea

Gizakien aldean urria izan da, berandu arte, emakume idazleen kopurua munduan zehar eta, Euskal Herriari dagokionez, bizpahiru ziren XX. mendeko lehen hamarkadetan idazten ausartzen ziren emakumezkoak. Txikia delarik gure biztanleriaren kopurua eta Hegoaldeko literaturak hain tradizio murrizta, ez dago batere gaizki emakume hauen presentzia une hartako egoera zokoratzailan. Herri ospetsu askori aurrea zeramakion, zalantzarik gabe, berauen eskubideen baliagarritasunean emakume euskaldunak.

Ustekabean gertatu zitzaion bakardadean hausnartutako kezak kanporatzeko bidea. Amatxi zenaren hileta iragarpena eta animaren aldeko mezen egunak adierazteko idazkitxoa eraman zuen Iruñeko *Pensamiento Navarro* egunkarira. Hartu zion kazetari batek eta, irakurri ondoren, herriko berriak perio-

dikora bidaltzeko proposamena luzatu zion bat-batean.

—«Nik eztaikit deus, —erantzun zion neskatoak. Hamar urtetarainoko eskola bakarrik dut; eztut geagorik.»

Kazetariaren izena aipu du izkribuetan, hark bultzatu baitzuen inoiz burura etorri ez zitzaion urratsa ematen. «Iduritu zitzaide gauze polite zela. Hala nere herriko izena bederen jakinen zute(n). Nik nahi nue(n) nere herria puxkat altxatu, ta in nue(n) inhala.»

Gosea eta azkura, hastearekin gura, izan ohi da, eta horrelako zerbait gertatu zitzaion Saraguetan gazteari idazlumarekin. Osasunez ez zebilen ongi eta Doxandabaratzen Iruñeko mediku abertzalearengana hurbildu zen. Halako batean, izkribuaren papera erori zitzaion sakelatik, eta ea zer zen galdetu zion sendagi-leak.

—«Zertako eztuzu iten *La Voz de Navarra* hortan?» —aipatu zion orduan gizonak. «Ta azkenien hainbertze erran zida(n), erran nue(n), *bueno!*, nik gaizki egiten dudana berek ko-pontzen baute...»

Baionatik *Eskualduna* aldizkariako eskaria etorri zitzaion gero eta, azkenean Donostiako *Argia*-n ere idazten zuen. 1929tik 1936an gerra hasi arte jarraitu zuen batzuen eta beste saioekin. Igande arratsaldetan ez zuen beste lanik egiten. Atsegin zitzaion, noski, —deus hartu gabe, periodikoa besterik—, baina adiskide berri asko egin zuelako pozik. Etxera

etortzen zitzaizkion ezagunak. Ama kontent zen horrekin, eta beretzat aski.


Nehork ez du aurkituko emakume honen izen-abizenik gerra aurreko izkribuetan. Behar bada horregatik ez da ezagutua euskaldunen artean. Ezizenak erabiltzen zituen beti. Hasieratik *Txorrondo* sinatzen zuen. Bera bizi zen auzoaren izena da. «Nere amaxik erraten zue(n), guk baratzea dugun tokian edo etxe gañeko aldian bazela intxaur beti eta, hain seguru, horregatik erraten zitzaiola *Intxaurrondo*», eta gero *Txorrondo* herri-etimologiaren arabera. Bigarren izengoitia *Mendigibel* Iparralderako erabili ote zuen? *Argia* astekariara *Aritza* izenarekin bidaltzen zituela lanak, entzun nion noizbait. Bazuen garai hartako izkribuen bilduma, baina geroko ekaitz gupidagabeak –gerrak alegia– haizatu zituen denak etxez aldatzean.

Urte amesgarri haietako oroitzapenetan bada bat bereziki atsegin zitzaiona. Kazetariak bidalitako galdera bati buruz idatzi zuen behin. Bertsolari saioen antzera, honako gai hau jarri zioten aurrean:

—«Milioi bat peseta bazenu, euskararen alde zer egin zenezake?»

Bakoitzak bizi duen egoera eta esperientziaren erroik mintzo da bihotza, eta bere erantzunaren funtsa bi helburutan agertzen da:

—«Haurren euskarazko eskolak egin nitzake lehenik, eta euskara zekien jendeari zerbait eman, bestalde», zioen bere mezuak. Kultura



Haur euskaldunei ematen zitzaien Aurrezki Kutxako saria.



Lau pezetako saria hartu zuten, 1927an, Mezkirizko 37 haurrek.

eta baliagarritasuna, alegia. Asmoa ez zen berria. Ez da ahanzi behar *Nafarroako Euskararen Adiskideak* haur euskaldunei sariak ematen hasiak zirela urte haietan ama-hizkuntzari zabalkundea eta prestigio galdua itzuli nahian. Mezkitzen 37 haur izan ziren sarituak 1927an eta, antolatzaileen hitzetan, ongi mintzo zuten denek geure hizkuntza,

hamabi lehenbizikoek euskara bakarrik erabiltzen zutelarik etxean. Herri euskaldunen eredugarri omen zen Erroibarko herri hau, *Euskal Erriaren Alde* aldizkariak zioenez (1929, 303. zenb., 53. or.).

Bere biziko poza hartu zuen egile gazteak, *La Voz de Navarra* egunkariak lehen orrian argitaratu ziola izkribua ikustean.

Bazen bestelakorik ere kazetari behin-behinekoaren esperientzia ernagarrian. Mezkerizko kanposantuaz idatzi zuen behin zein

egoera negargarrian zegoen salatuz. Aitzinetik egona zen horma zaharren zuloak ikusten, eta txakurrek hezurak ateratzen zituztela idatzi zuen. Herritar batzuei ez zitzaaien ongi iruditu hori, eta bere gauzetan sartzeko esan zioten. Berehala konpondu zituzten halere pareta hautsiak. Zerbait garbi baldin bazeukan, inorengatik gauza txarrik ez esatea zen; baina herriko familia guztientzat itsusia iruditzen zitzaion denen aurrekoak ehortzitako hilerriaren utzikeria.

Ama familiakoa

Baztango Trinidad Urtasun bertsolariarekin esposatu zen Perpetua 1931ko uztailaren 22an. Neskatoaren kazetaritzak ez zuen deus ikustekorik izan honetan. Saragueta familiak bazituen hurbileko ahaideak Iruritan. Amatxiren ahizpa han ezkonduak senarra galdu zuen, eta Perpetuaren ama bere lehengusina ikustera joan zen alaba zaharrena eta seme txikienarekin. Hogei urteren aldea zuen Perpetuak anaia gazteenarekin. Janari denda zuen izeba alargunak eta, adinekoa zen. Erori eta hezurren bat hautsirik, hari laguntzen utzi zuen amak Iruritan.

Okindegia zuen, bestalde, mutilaren aitak herrian eta ogi banatzen joaten zen gaztea egunero dendara. Horrela sortu zen elkarren arteko lehen ezaupide arrunta. Bat-batean, beraganako atxikimendua agertzeraz joan zitzaion mutila etxera. Perpetuak ez zuen hasieran batere gogokoa, nonbait, baina zalantza askoren ondoren ezkontzea erabaki zuten.

Mezkiritzen egin zen elizkizuna, eta ezteiak gero festa-giro ederrean. Txistulariak ziztuzten lagun elizako bidean eta bazkalondoko dantzaldian.



Ezkontza eguneko argazki ofiziala.



Nafarroan gidabaimena zuen bigarren emakumea zela aitortu zioten Iruñean.

Erabat aldatu zen ezkontzean Perpetuaren bizia. Ez zen orain adina auto ikusten errepi-deetan, baina okindegian bazuten ogia banatzeko beribila, eta autoa gidatzeko txartela atera zuen Perpetuak 1935ean. Nafarroan gidabaimena zuen bigarren emakumea zela aitortu zioten Iruñean. Zitzu bizian egiten zuela itzulia, zioen berak, horrela arinduz senarrari eguneroko lana. Baztanen izan zuten lehenbiziko alaba eta, bataio egunean, garbi zuen aitak haurraren izena Miren Agurtzane izan behar zuela. Artean ez zegoen euskal izenak paratzeko ohiturarik eta arrotz gertatu zitzaion nonbait apaizari. Hori ezpada, bataiatu gabe geldituko da haurra, —erantzun omen zion berak, eta Miren Agurtzane da elizako liburuetan.

Zoritxarrez, osasunarentzat ez zitzaion ongi joan Baztango egonaldia ama gazteari eta Mezkiritzera itzuli ziren biak. Bertan hasi zen euren biziko gurutze bide latzena. Gerra denboran ez zen nortasun-agiri egokia bertsolaritza inorentzat, batez ere emazteak eus-

karaz idazten baldin bazuen egunkarietan. Nabaria zen bion pentsabidea eta, halako batean, bila joan zitzaizkien etxera. Falangista bat zen buru Eugiko guardia zibilak lagunduta. Bi alaba txikiekin zegoen aita etxean eta sekulako jipoia eman ondoren, kanpora atera zuten gizona autoan eramateko. Apaiza eskatu zuen berak, eta hura berehala jabetu egoe-raz. Bere gorpuaren gainetik pasa beharko zutela, esan zien elizgizonak, atxilotua edo besterik nehor handik eramango bazuten. Utzita joan ziren orduan.

Perpetua ez zegoen egun hartan etxean. Senarraren aitari ebakuntza egin eta Iruñeko San Migel klinikan zegoen hari kasu egiten. Sumatu zuen zerbait larri gertatzen zela, berri izugarriak entzun baitzituen erietxean bertan, eta beldur zen Marzelino Olaechea apezpikua ere ez ote zuten garbituko. «Zer otoi-tzak ez nituen egin san Migeli eta santu guztiei!», –idatzi zuen gero.

Etxera itzultzean lihoa bezala zigorturik aurkitu zuen senarra, baina bizirik zegoelako pozik halere. Ez zuen geroztik bururik jaso gizonak; ez zen lanerako on. Sei alaba izan zituzten eta familia aurrera ateratzeko gizonaren laguntzarik ez etxean. Iruñera joan ziren 1944an bizitzera. Gau eta egun aberatsentzat josten eta brodatzen ateratzen zuen dirutxo bat. Bihotz oneko jenderik ezagutu zuen, noski, eta esker oneko hitzak zituen denentzat.



Miren Agurtzane alaba zaharrena amaren altzoan eta Julia, Perpetuaren ahizpa.



Herriz herri ibiltzeko agintarien baimen txartela.



Trinidad Urtasun bertsolaria ezagutu zuen Baztanen.

Trinidad Urtasun (1894-1978) zenaren bertso gutxi ezagutzen da. Aita Zavalak zazpi jaso zituen *Bidasoa aldeko bost bertsolari* liburuan. (Auspoa 97). Zirtada zorrotz eta etorri bizi-koplaria izan behar zuen gaztetan. Perpetuaren ustez, emakume gaietan ausartegiak ziren bere bertsoak, berdeak alegia, eta ezkondu ondoren denak erre zituen, inoiz alaben eskuetan eror ez zitezen. Borreroen zigorradak astindu zituen betiko haren bertsoak, umorea eta bizitzeko poza. Emaztearen ustez, burua kolpatu izango zioten, nonbait, erasoaldian.

Biziak ez bazion, gazte-gaztetarik, bide zelai eta eroso eskaini Erroibarko alaba prestuari, geroak ez zizkion urratsak erraztu. Halere, ez zuen inoiz zailtasunen aurrean etsi. Adore handiko emaztea zela agertu zuen, ekaitz handien aurpegi latza poesiaren begi xaloz ikus nahian. Aparteko sentimendua izanik berak,



Senar-emazteak bilobez inguratutik.

buru hotzez eta kementsu aurre egin zien familiaren beharraldiei. Gerra ondorengo gose denboran, gau osoak egin ohi zituen begirik itxi gabe josten eta brodatzen zerbait etxera ekartzeko.

Begitarte irri-barretsua estaltzen zituen une larrietako malkoak, eta gauero bazuen alaba-txoentzat abesti amesgarriren bat ere oheratzean. Berak sortutako doinuarekin abesten zion txikienari, eta zaharrenek ikasi. Amatziren lo-abesti maitagarria izan da geroztik bilobentzat.

Aparteko dohainak zituen, bestalde, ezkutuko zantzuak eta urrutiko gertaerak igartzeko orduan. Bazen ofizioko ingeniari ospetsua Nafarroako Diputazioan, ustezko meatze eta lurpeko uren bilaketan erabaki garrantzitsuak hartu baino lehen, ikerlanen azken frogaren pendulu mugikorraren bidez baserriko alabari eginarazten ziona. Segurtasuna zerion, ikasi-



Senar-emazteak Baztango egonaldian.

arentzat. Sentiberatasun handiko pertsona zen eta asko sufritzen zuen nonbait izandako ikuskizun eta agerpen zehatzekin. Anaia gaztea ikusi zuen, adibidez, bertan egon balitz bezala gerran hiltzen, eta berak esandako zauri eta keinuekin gertatutzat eman zen ofizialki hurrengo egunetan. Bere ahizpa Argentinan zendu zen unea ikusi zuen beste batean, biloba gaztetxoa bakarrik zegoela ohe buruan ziurtatuz –nolako jantzi eta guzti– eta haren azken hitzak errepikatuz. Ondorengo berriek egiaztatu zuten, hitzez hitz, unea, tokia, neskatoren presentzia soil eta Perpetuak bereztat zuzenean jasotako azken mezua. Ez dira,

noski, antzeko pasarte bakarrak. Berezko dohaina zen eta ustekabeen gertatu ohi zitzaizkion ikuskariak, ez berak nahita. Lanbro zuriz inguraturik ikusi ohi zituen berri onak, eta txarrak beti gorriduraz estalitako sabai aurrean. Gogorrak egiten zitzaizkion aurkezpen bitxiok, eta ez ziola inori opatzen horren sufrimendurik, esan ohi zuen.

Biziko amets eder askori uko egin behar izan zion pleinu antzu eta umore txarrik gabe, egoerak behartuta, baina bospasei urtez gazte denboran hain gustura egindako idazle-lana ez zuen inoiz burutik kendu. Horregatik, bizi luzeko isilune guztien ondoren, bestelakoeta-

tik bere burua aske ikusi bezain laster arkatza eta lumari lotu zitzaion berriro gogotsu. Ibilbide latzeko azken gailurrera iristean, ikuspegi zabaleko begirada eman nahi izan zion egindako mortu malkartsuari *Oroimenen* liburuan.

Lasaitasunezko kutsu gozoa zerien beti haren hitzei. Ez ziren azaleko esames itxurazaleak. Inorengatik gaizki ez esateko ohitura eta zailtasunei aurre egiteko naturaltasuna, sinesmen sendoaren ondore berezkoak ziren beregan. Zaila da, hain zuzen, –ezinezkoa fedearen indar ezkutua gabe– zortzi ahoko familia berak bakarrik aurrera ateratzeko garaian, gabezien erronkari gorputz ahulduak alaitsu erantzutea. Guraso benetan jainkozaleak izan zituen eta giro oso elizkoian hazia izan zen noski. Birao bat entzuten bazen etxean biz-



Trinidad Urtasun azken urteetan.

pahiru eguneko baru gorria –ur hutsean alegia– egozten zion bere buruari Perpetuaren amak. Ez da harritzekoa hain erro sakonetan oinarritutako alabaren sinesmena.

Jainkoaren beldur santuan ez baino, Haren amodio zinezkoan finkatzen zuen familiako ama gazteak bere sinestea. Aitzinatua zen erlijioaren ikuspegi zintzoan. Askotan gertatu izan zitzaiola aitortzen zuen, deus gabe eguna argitu eta erosteko sosik ez. Gau hartako eskulana aberatsen etxera eraman eta, edozein aitzakiarekin lansaria eskuratu gabe itzultzean, ate ondoan beste norbaitek isilka utzitako zorroa janarekin prest. Ez zuen espantuz esaten. Gezurra bezain arbuigarri zitzaien ustetsuen harrokeria. Fedearen gordailuko zokorik barrenean sakonduz, gutxitan aipatu zuen aitorpena egin zuen behin; konfidantza osoarekin esaten ziola alegia eguna hastean Jainkoari:

«–Jauna, nereak adina dire zureak; zuk dakizu zer egin behar duzun.» Zinez zioen gero –ahotsa aldatu gabe– ez zirela jan gabe etxean inoiz oheratu, gerra ostean gose asko pasatzen zen urte txar haiek izan arren.



Azken urteetako izkribu batean dio, erdaraz, dena Jangoikoarengandik itxaroten erakutsi ziotela, eta fede bizi fermuarekin jarraitu zuela horretan beti, berak nahia baino gehiago zetorkiolarik konturatu gabe.

Euskara

Lanak eman zizkion bigarren aldiko idatz saioetan euskara batuak. Biziko oroitzapen guztiak idazteko irrika bizian beti egon ondoren, uste gabeko zailtasunez beterik aurkitu zuen bidea berriz idazten hasteko orduan. Izan ere, gazte denboran haur euskaldunentzat amesten zituen eskolak bazirela ikustearen poza, beretzat berria zen euskara erakusten zutelako tristuraz bete zen. Ikastoletako gizarte berria zetorren indartsu bultzaka. Nola aldatua zen hizkuntza etxeoandre zuhurraren idazle afizioko azken txanpan! Berri-berritik euskara ikasten hasi behar ote zuen, galde-

tzen zion bere buruari. Gurasoen euskara herrikoia maite zuen benetan eta ez zegoen beste bat ikasten hasteko adinean. Baina oroitzapenak idazteari uko egitea gogorra egiten zitzaion, eta hausnartze askoren ondoren, berak zekien moduan egiteko erabakia hartu zuen.

Axular-en «Geroko gero» delako gomendioari jarraitu balitzaio bezala, behar den erabaki jatorra hartu eta lanari ekin zion gazte baten suhar bizian. Perpetuaren idazlan hauek badiutze euren mugak noski. Gazte denborako aldizkarietan ohikoa zen garbizaletasunaren kutsua darie eta, bere aldetik, erdal jatorriko hitz asko euskal senako iturri garbietara eramaten ahalegintzen da. Hiztegia da, hain zuzen, joera honetan gehienik nabarmentzen den arloa; baina ez da hori akats larria. Irakurtzen zuelako marka da, alde batetik, eta



Eskuizkribua.

garai hartako idazle gehienek ezaugarri arrunta, bestetik.

Horretaz landa, bere azken urteetako izkribu hauetan bada merezimenduz azpimarra daitekeen ekarpenik. Mintzaira herrikoia aredatza eta jantzia atxiki ditu eta azken urratsak uzkur ematen zihoan Erroibarko azpi-euskalkiaren lekukotasun lehen eskukoa da emakume argi honen ekarpen baliotsua. Herriz herri nahi genituzke horrelako testigantza baliotsuak euskara zaharraren aztarretan sakontzen joateko.

Hizkuntzarena, bestalde, ez da Perpetuak eskaintzen duen ondare bakarra. Bere izkribuak ez dira lainoetako ameskizun hutsaletan galdutako asmaketak. Hankak lurrean ongi errotuak dituela, zehazki darie izkribuei bere



Perpetua Tarragona aldeko hondartzan.

bizia txikitatik astindu zuten istripu, estutasun eta gabezia askoren mezua. Nortasun aparteko pertsona prestuaren biografia jakingarria da, alde horretatik, berea.

Aipatzekoa da, halere, hiriburuko ikuspegi zabalagoz ikusita egin zuela, heldutasunean alegia, gazte denboran bizitako baserri giroaren azalpena. Jantzera hiritartu honen atzean, urte askoan amestutako herrimina nabarmentzen da, gertakizunik mingarrienak ere leuntzen dituen iragan denborak baduelarik bere eragina. Atal honetan, etxeko pasadizoekin batera, badu garai hartako lanbide, ohitura, sineste eta ipuinei buruz, *Etniker* taldeko inkestarekin burutu zuen bilketa-lan mamitsua.

Labur bilduz, hizkuntza, pertsona, herria, hiruok dira Perpetua Saragueta andreak arakatu zituen bizitzako harrobiak: euskara herrikoia mintzabide, oroitzapen amultsuak kontagai, eta herri-jakintza aholkulari.



Etnografia. Oholezko borda Txorrondon.

Argitalpenak

Mezkirizko idazlearen izkribuetan badira lan argitaratuak eta argitaragabeak. Zahartza-roan berriro idazten hastera bultzatu zuen grina nagusia bere biziko gertakizunen oroi-tzapenak idaztea izan zen. Honela dio, hitzez hitz, *oroimenen* sarrera gisa idatzitako atalean:

Egia da beti banuela —eta anitz denbora du— nere biotzean nai bizi bat aspaldien agertue idazteko nere oroimenak, asi neure amatxin ipui edo kontuekin eta nere oraiko afera txikieneraino.

Ez da neure biziak baduela edo eskeintzen duela bertze batenak baño geago, gauza obeak, eta ez ain onik ere; baño nik egiteko-tan egin bear dut neurea. Bizi guziak ederrak dire, ez alako irakurgaia-gatik. Edozeñen bizia da aise ederrago.



Perpetuaren argazki zabalduena.

Bere biziaren lekukotasuna idatzirik utzi nahi honek, ez zuen aldizkari eta egunkarietan helburua, gazte denboran bezala, familia eta hurbileko pertsonetan baizik. Izan ere giro samur eta etxe-koian azaltzen ditu sentipenak, berez ateratzen zaizkion moduan, inoren esames eta erantzukizunen beldurrik gabe adinak eta egiaren ziurtasunak soil-soilik ematen zion adorez. Honela aitortzen du bere asmoa:

Orain etzaide deus inport. Nai nuke nere alaben ume guziek iakin dezaten ez dela bizia berek izan dutena bezain ona. Baita ere nai dut, berek, nere billobek ikasi dezaten nere euskera bera hots egiten, irakurtzen eta idazten.



Gizaldi berria. Biloba besotan.

Izkribu hauek, egilearen ikuspegi aldetik, ondorengoekilako bihotz lotura izan nahi dute; amatxiren azken gogoia odolaren deian datza, bere ahotsa, gizaldi berrien iraunkortasunean nolabait txertatzeko.

Azpimarratzekoa da, bestalde, biziaren parean kokatzen duela ama-hizkuntza. Lehen aipaturiko euskara batua nagusitzen ikusi zuen ikastolen bidez eta haurtzaroko mintzaira etxekoi goxoa galtzea bere-berea zen arnas-bidea edo biziaren zati handia kentzea bezala zen beretzat. Ez zegoen batuaren aurka, baina horrek ez lukeela aita-amen mintzaira desgertarazi behar, esaten zuen.

Nere oroimenak da bilduma mardul baten izenburua. Etxekoen eskuetan gelditu da ondare kutun hau bere osotasunean inoiz argitaratu gabe. Plazaratutakoen artean honako lan hauek aipa daitezke:

«Nere oroimenak», (FLV 31, Iruñea 1979, 171-176. or.) idazlearen biziari dagozkion pasarte soil batzuen sorta laburra da, izen bereko lanetik hartua. Egileak ezagutu zuen Erroibarko euskararen berri ematea zen eskuizkribu honen helburua eta ibarreko azpi-euskalkiaren azken lekukotasun idatzia gerta zitekeen.


«Trinidad Urtasun bertsolaria (1894-1978).» (FLV 32, Iruñea 1979, 333-338. or.). Senarra hil zenean idatzi zuen haren oroigarritzat. Elkar ezagutu eta ezkondu zirenetik hasi eta urte luzeetako bizi-laburpena da, gerra denborako istiluak barne direla.



Bertsolariaren hileta-orogarria (1978/07/31).



Heriotza isila.



Erlauntzak. Etniker inkesta egin zuen herrian.



Saragüeta familiaren etxe eraberritua elurrarekin.

«Perpetua Saragüetaren euskal ipuiak» (EGAN, 5-6, Donostia 1985, 131-144. or.). Egilea hil ondorengo urtean argitaratu ziren oroigarritzat.

Ongi ezagutzen zuen Mezquirizko alabak herri txikietako bizimodua eta saiatu zen haurtzarotik era guztietako lanetan gurasoei laguntzen. Esperientzia hori guztia jaso nahian, herri-jankintzako inkesten zerrendari erantzutea eskatu zitzaion. Gogotik hartu zuen eginkizun berria eta hiru ataletan argitaratu zen bere emaitza aberatsa:

«Mezquiritz (Erroibar).» (CEEN 31, Iruñea 1979, 5-36. or.). Herria, ingurumena eta mendiak, beroien xarmarekin, aipatzen dira lehen

parte honetan. Herrimina darie bere ohar guztiei atxikimendu sakonarekin.

«Mezquirizko etxe barnea.» (Anuario de Eusko Folklore 31, Donostia 1982-1983, 31-48. or.). Sutondoa, etxeko lanak, garbiketa eta jana, dira atal honen eduki nagusia. Baina erlijio gaietan ere sartzen da, barnean zeraman sinesmen sendoaren ikuspegitik familietan bizi zen giroa eta sentimenduen jarduera azaltzeko, batez ere.

«Mezquirizko langintza.» (Anuario de Eusko Folklore 32, Donostia 1984, 115-134. or.). Unaia zen Perpetuaren aita eta abere hazkuntza gertutik jarraitzen du, nekazaritza eta eskulangintza ahaztu gabe. Kultura mailan

bere denboran ezer gutxi eman bazitzaien ere eskolan, kontuan hartzen ditu orduko elizgizonen lana eta geroztik irakaskintzan izandako aldaketa.

Etnografia saileko lan hauek koaderno berezietan egin zituen eta ez daude bere oroimenen bilduman. Saio luze honen bidez lortu zuen betiko ametsa: ikasien artean sorteria ezagutaraztea. Hortik atera dira Mezkirizko dantzei buruz emandako berriak (*Dantzariak* 34, 1986, 24-25. or.).

1986ko martxoaren 26an ezkutatu zen espiritu handiko emakume honen irribarre bake-tsua. Iruñeko egunkari batek honela zioen: «Ez, ez zen nolanahikoa Mezkiritzeko lurrak hartu berri duen gorpu ahulean gordetzen zuen nortasuna. Hilda ere, hegoaldeko nafarrera garaiaz idatzi duen azken idazlearen berri gehiagoren esperoan gelditzen gara

orain.» Hileta-goratzarrea eskaini zitzaion bere egunean (EGAN-en (1986, 5-6, Donostia 1986, 67-79. or.) eta ugaritzen doaz, geroztik, bere lekukotasunaren aipamenak euskaltakotako ikerlanetan.

Bere aitak burua jaso baleza, agotz-zakua ez baino urre-kutxa aurki lezake emakume-eskubideen aitzindari trebea izandako alabaren bizian. Euskal Herriak emandako etxekoandre zuhur eta baliotsua izan zen Perpetua Saragueta mezkiriztarra.



Oroit-txartela.



Familiaren hilarria.

Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak liburuxka honen material grafikoa ondorengoei esker lortu du:

- *Jesus Alfontso Larrea.*
- *Urtasun Saragueta familia.*

Zuzendaritza: Mikel Atxaga

Argitaraldia: 1.a, 2001eko azaroa

Ale-kopurua: 2.325

© Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioa
Kultura Saila

Argitaratzailea: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia
Donostia-San Sebastián, 1 - 01010 Vitoria-Gasteiz

Argazkilaria: Joseba Olalde

Fotokonposizioa: E.P.S., S.L.
Beato Tomás de Zumárraga, 66 - 01009 Vitoria-Gasteiz

Inprimaketa: Gráficas Santamaría, S.A.
Bekolarra, 4 - 01010 Vitoria-Gasteiz

ISBN: 84-457-1767-7
84-457-1770-7

L.G.: VI-511/01

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

DEPARTAMENTO DE CULTURA
Viceconsejería de Política Lingüística